

## HEZIREN BATZORDE IRAUNKORRA

### PARTAIDEAK:

- Oihane (Ludotekako arduraduna), Ismene (Guraso Elkarteko kidea), Jon (Guraso Elkarteko kidea), Oier (hezkuntzan aritua), Irati (hezkuntzan aritua), Larraitx (hezkuntzan aritua) eta Idoia (Oinherri)

### LANDUTAKO GAIAK:

- ❖ Azken bileran adostutakoen errepasoa eta aurrera begira eman beharreko pausuak

- **AISIALDIA:**

- 12 – 16 urte bitarteko nerabeekin bi asanblada egin dira, euren proposamenak jaso eta aurrera nola egin daitekeen ikusteko
  - Proposamen nagusiak zinema (gaztetxean egin daitekeela aipatu da), irteerak antolatzea eta jolas parkea hobetzea izan dira. Proposamen hauek udaletxera helaraziko dituzte
  - Zero Zaborrekoekin batera lanketa egin daiteke zaborrak lurrera bota ez ditzaten
  - Frontoi aurreko kantzaren inguruko bilerara joateko prest eta gogoz daude
    - Noiz:
    - Nork: Oihane eta Oier
- Ludoteka zerbitzuaren inguruko hausnarketa egiteko ludotekako arduradunak guraso elkartekoekin elkartuko dira

- **ELKARBIZITZA:**

- Eskolakoek proposamen berri bat landuko dute
  - Noiz: Gabonak bitarte
  - Nork: Eskolak
- Auzo konpostari bultzada eman esparru desberdinetan
  - Noiz: Ikasturtean zehar
  - Nork: zero zabor, ludoteka eta eskola

- **IRISGARRITASUNA:**

- Eskola Bidearen inguruko hausnarketa egingo da gurasoen artean, galdetegi bitartez, bilerak eginez... gurasoen inplikazioa lortu nahi da dagokien gai guztietan
  - Gai honetarako lan talde bat sortzea proposatzen da
    - Noiz: Ikasturtean zehar
    - Nork: Guraso Elkartek

- **ESKOLA INGURUKO ESPAZIOEN INGURUKO HAUSNARKETA:**

- Frontoi aurreko kantzak izango du lehentasuna
  - Aurrekontu bat egingo da

- Erabiltzaileak identifikatu ditugu (irakasleak, gurasoak, langileak, gazteak, haurrak eta haur-eskolakoak) eta gai honen inguruan hitz egiteko bilera bat zehaztuko da.
    - Noiz: Ikasturtean zehar
    - Nork: Iñigo eta Irati
- **FORMAKUNTZA:**
  - Hiru saio egitea erabaki da
    - Azaroaren 27an (18:30etan) Bolatokiak  
**Herri hezitzailea, Eskola herritarra** (benetako parte hartzearen garrantzia eta haurtzaroaren kultura)
    - Abenduaren 11 edo 18an (18:30etan) Kultur etxean  
**Parkeak bizitzeko modu berriak** (Txusma Azkona irakasleak emango du, jolas askearen garrantzia azpimarratuz eta parke ereduaren inguruan hausnartuz)
    - Urtarrilaren 15ean (18:30etan) Kultur etxean
    - **Eskola Bidea** (Nerea Olanok, Oñatiko udaleko zinegotziak, eta Egiako Aitor ikastolako guraso elkarteko kideek emango dute)
- ❖ Hurrekin beste asanblada bat egin zen eskolan gelaz gela deialdia eginda.
  - Proposamenak: Igerileku estalia eta jolas parkea
  - Eskolarekin hitz egin behar da 3 - 12 urte bitarteko hurrekin lanketa nola egin erabakitzeko, nola egituratu erabakitzeko
- ❖ HEZIREN ASANBLADA IREKIA egiteko beharra ikusi da, AZAROAREN 19an 19:00etan Ludotekan
  - Landuko diren gaiak:
    - Aurten lantzen hasi diren eta landuko diren proiektuen aurkezpen zehatza
    - Egingo diren formakuntzen berri eman.